



Siriako Tell Qarassa aztarnategian aurkitutako hagatxoak. ARG.: CSIC.

Giza sinbolismoaren garapena ulertzen lagundu duen aurkikuntza Sirian

Zizelkatutako bi aurpegi dituen hagatxo bat aurkitu dute

Arte figuratiboak izandako bilakaera ulertzen lagundu du Siriako Tell Qarassa arkeologia-aztarnategian aurkitutako hezurrezko hagatxoak. Espainiako CSICek zuzentzen duen nazioarteko ikerketa-taldeak *Antiquity* aldizkarian argitaratu berri duen artikuluan ezagutzera eman duenez, hezurrezko hagatxoak 8.000 urteko antzinasuna du, eta zizelkatutako bi giza aurpegi ageri ditu.

“Ehiztari-biltzaileen ikonografiak animalien irudi naturalak adierazten ditu; giza irudia, berriz, modu eskematikoagoan adierazten du, salbuespen gutxi batzuetan izan ezik —azaldu du CSICeko Juan Jose Ibañez Ikertzaileak—. Neolitikoaren

sorrera bultzatu zuten aldaketa sozial eta ekonomikoak ematen hasi ziren heinean, giza irudia jarri zen irudikapen sinbolikoen erdigunean, eta Tell Qarassan aurkitutako hagatxoan agertzen diren antzeko giza aurpegi adierazpen naturistak azaldu ziren”, argitu zuen Ibañezek.

Sirian aurkitutako hagatxoak 51 milimetroko luzera, 17 milimetroko zabalera eta 7 milimetroko lodiera du. Duela 8.200 urte inguru, bobido handi baten saihetsa erabiliz egin zuten, ziurrenik uro euroasiar baten hezurra. Bata bestearen gainean irudikatutako bi aurpegi ezaugarri berdinak dituzte: kopeta garai eta zabalera, beti le gaineko arku zehatza,

begi itxiak, kopetarekin lotutako sudur luze eta zuzua, ebakidura txiki eta zuzen baten bidez egindako aho txikia eta kokots biribila. Bi aurpegi ez dute ileirik ezta belarririk ere.


Paleolito eta Neolitoaren arteko trantsizioan era honetako aurpegiak ageri dira bai eskultura monumentaletan bai modelatutako garezurretan (aurpegiarak modelatuta dituzten arbasoen garezurrak). “Kasu bietan, naturaz gaindiko izaki eta gizaki bizidunen arteko lotura sustatzeko balio du aurpegiaren irudikapenak”, nabarmendu zuen Ibañezek. “Neolitoaren sorrerarekin lotzen den berrikuntza nagusietako bat da hori”. ●

Saturnoko hexagonoa: fenomeno harrigarria

Orain dela hogeita hamar urte Saturnoren iparraldeko poloa inguratzen duen hexagono-formako egitura bitxi bat deskubritu zen. Orain, EHUko Zientzia Planetarioen Taldeak fenomeno zehatz-mehatz aztertu eta neurtu du sei urtez, eta, beste lorpen batzuen artean, haren errota-zio-aldia ezarri ahal izan du. Ikusi dutenez, aldi hori planetarena berarena izan liteke. Hain zuzen ere, Saturno eguzki-sistemako planeta bakarra da errotazioa egiteko zenbat denbora behar duen ezagutzen ez dena. Halaber, jakitera eman dutenez, oso egitura egonkorra da hexago-

noa, eta Saturnoko urtaroko aldaketek ere ez dute inolako eraginik horretan, oso gogorak badira ere. Planetaren ardatzak 27 graduko makurdu-ra duenez, zazpi urtetik gorako gau polarrak izaten ditu, eta, ondoren, argiztapen aldakorra duen 23 urteko aldi luzea dator.

Ikerketa *Geophysical Research Letters* aldizkarian argitaratu dute, eta azalean ere agertu da. Besteak beste, 2004tik Saturnoren inguruan orbitan dagoen Cassini espazio-ontziak egindako bereizmen oso handiko irudiak baliatu dituzte beren ikerketa eta neurketak egiteko. ●



Saturnoren iparraldeko poloko hexagono-formako egitura aztertu dute EHU sei urtez. ARG.: NASA/JPL-CALTECH/SPACE SCIENCE INSTITUT.